

***COVID-19* KRISIALDIAREN ONDORIOZ
KULTURGINTZAN URGENTZIAZKO NEURRIAK**

ehbildu



INDIZEA

Sarrera.....	3
Kulturaren krisi mahaia eta urgentziako talka planak.....	4
Kulturarako krisi funtsa.....	5
Atzeratzea vs. bertan behera. ordainketak 30 % y 70 %.....	7
BEZ kulturala.....	8
Deialdi eta dirulaguntzak.....	8
Neurri fiskalak.....	10
Udal tasak.....	10
Eranskina I.....	11
Eranskina II.....	13

SARRERA

Lehenik eta behin herritarrak koronabirusaren ondorioak arintzeko erakusten ari diren erantzunkidetasuna eta elkartasuna balioetsi nahi ditugu, bai prebentzio-neurriei dagokienez, bai herriz herri eta auzoz auzo sortzen ari diren elkartasun-sare komunitarioei dagokienez; zentzu honetan ere, herri honetako sortzaile, artista eta proiektu kulturelek abiatu dituzten ekimenak balorean jarri nahi ditugu, Larrialdi egoeretan azaleratzen zaizkio pertsonari bizitzeko ezinbesteko dituenak eta bizitzen ari garen honetan oso nabarmena da momentu gogor hauetan herritarrok ezinbestekoak ditugula musika, literatura, bertsolariza, dantza, antzerkia, komigintza, arte-plastikoak, zinemagintza-ikusentzunezkoa eta bestelako sormen adierazpideak..

Auzolana da antzinatik bizitza komunitarioa ulertzeko dugun ezaugarri aipagarrienetako bat eta larrialdi egoera honetan kulturgintzaren bitartez ere erakusten ari gara elkar zaindu eta babestearen, elkarlanaren eta elkartasunaren garrantzia. Kultur esperientziek eta kultur imajinarioek munduan leku bat egiten laguntzen digute: barne-mundua elikatzen digute, zentzuaren eraikuntzan laguntzen digute, geure buruaren eraikuntzan laguntzen digute, baita mundua ulertzen ere, trukea sustatzen dute, jolaserako espazioa sortzen dute, arakatzera gonbidatzen gaituzte, eta batez ere, komunitate bateko kide sentiarazten gaituzte. Hizkuntzak egiten gaitu pertsona, kulturak herritar.

Zoritxarrez, Euskal Herrian, kulturgintzaren eta beren beregi euskal kulturgintzaren prekaritatea eta egoera larria hamarkadetako eta egiturazko arazoa da, eta horrek momentu honetan erantzun eta konponbide azkarrak ematera behartzen gaitu, kultura geuretzat izaera estrategikoa duen heinean. COVID-19 kulturgintzan eragiten ari den kalteek inoiz baino argiago utzi dute kulturgintzak dituen arazoak aspalditik datozela eta egiturazkoak direla. Krisiak berak eta honek irekiko duen ziklo berria baliatu behar dugu kulturgintzari etorkizun osasuntsua bermatuko dioten epe luzerako erabakiak hartzeko. Orain, dokumentu honetan COVID-19ak eragin dituen eta eragingo dituen kalteei aurre egiteko premiazko neurri eta irtenbideak proposatzen ditu EH Bilduk adierazpen artistiko guztietako langileen biziraupena eta iraunkortasuna bermatzeko, besteak beste.

Eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak jasotzen dituen zeharkako gaiez haragoko **urgentziatzko talka plan integrala** behar du sektoreak. Dekretu honen bidez Kultura-sektorea ICO kreditu-lerroari (100.000 milioi euro), autonomoen kuota kentzeari eta ERTEak bizkortzeari (Enplegua Aldi Batez Arautzeko Espedientea) heldu dakioke, baina horrek oso partzialki erantzuten dio gure kultura-ekosistemaren errealitateari, eta kezkarriena dena, ez die inolako estaldurarik ematen gure kultura-ekosistemaren esparru prekarizatuenei.

Europako herrialdeek hainbat ekintza hasi dituzte krisiari aurre egiteko eta industria kulturala alde batera ez uzteko, estatu frantsesa kasu eta Alemania non kultura premia biziko ondasunen artean kokatu du krisi honetan. Eta ez dugu hori hemen ikusten ari, ez Espainiako Gobernuaren aldetik baina ezta ere Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Foru Aldundien aldetik; udaletxe gutxi batzuk ari dira neurri batzuk planteatzen. Hori dela eta, egoera honetan 7 neurri hauek premiaz planteatzea beharrezkoa deritzogu, krisialdi hau kultura sektorean momentu honetan eragiten ari den ondorio kaltegarriak arintzeko.

1. KULTURAREN KRISI MAHAIK ETA URGENTZIAZKO TALKA PLANAK

Krisi egoera honi ahalik eta modu integralean erantzuteko, bai Nafarroan baita EAEn ere, krisi honen ondorioei adostasunetik eta modu koordinatuan erantzuteko krisi mahaiak osatzea proposatzen dugu.

EAE: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, EUDELeK eta hiru Foru Aldundiek, Euskal Aktoreen Batasunak, Eskenak, ADDEK, Artekalek, Besteokek, EZEK eta Musika Bulegoak proposatutako mahai teknikoarekin bat egingo du. Mahai horretara biltzeko proposamena luzatuko zaie deialdia egin duten eragile horiez gain Bertsozale elkarteari, Euskal Idazleen Elkarteari, Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteari, Euskal Ilustratzaileen Elkarteari, Editoreen elkarteari, EHIeri, Musikariri, EIKENi, Karraskani... eta oro har kulturagintzan ari diren eragileei.

NAFARROA: Kultura eta Kirol Departamentuak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko ordezkariak eta sektoreko eragileak batuko dituen mahai teknikoa

osatu eta deituko du lehenbailehen, egoera premiazkoa delako. Mahai horretara biltzeko proposamena luzatuko zaie NIE Nafar idazleen elkarte, AeszeNa, Napaeri, KuNa, ANIIC, Nafarroako Dantzarien Biltzarra, NAPAE, Bertsozale elkarte, Euskal Idazleen Elkarte, Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte, Euskal Ilustratzaileen Elkarte, Editoreen elkarte, EHIeri, ... eta oro har Nafarroan kulturagintzan ari diren eragileei.

Krisi mahai hauetan diseinatu eta adostuko dira EAerako eta Nafarroarako **kulturagintzarako urgentziatzko talka plan integrala**. Talka plan horretarako hemen proposatutako neurriak aztertu eta jasoko dira.

2. KULTURARAKO KRISI FUNTSA

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak hainbat neurri onartu dituzte Gobernu Kontseiluan eta Gobernu Bileran hurrenez hurren. Enpresak laguntzeko eta herritarren beharriaznei erantzuteko programak. Horietan Arte eta Kultur industriak zein proiektu kulturalak espezifikoki ez dira jaso ezta aurreikusitako. Hori dela eta Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak Kulturari zuzendutako krisi funtsa berezitua sortuko dute, iragarri dituzten neurri eta diru kopuruetatik eratorria, krisi funtsa horietan oinarritako kulturako proiektu txikiek, sortu berriak diren proiektuek, artista eta sortzaile berriek eta euskaraz direnak tratamendu berezitua izango dute:

2.1 Eusko Jaurlaritzaren 300M/€-ko aurrekontua duen eta, beharrezkoa izanez gero 500M/€-ra arte handitu daitekeen *Covid-19 programa* izeneko aurrekontu-programa berriari gutxienez % 4ko erreserba kultura sektorearentzat¹.

2.2 Foru Exekutiboaren 100 M/€-ko aurrekontua duen eta, beharrezkoa izanez gero handitu daitekeena funtsetik gutxienez % 4ko erreserba kultura sektorearentzat².

¹ Ikus eranskina 11. Orr.

² Ikus eranskina 11. Orr.

2.3 Likidezia bermatzeko Finantzen Euskal Institutuaren 25 M/€ko premiazko finantzaketa lerroan Arte eta Kultura Industriak tratamendu berezia eta espezifikoa izango dute sektoreak duen izaera estrategiko eta berezitasuna kontutan hartu, finantza baldintzak malgutuz eta egokituz.

Kulturaren krisi funtsarekin, jarduera eta proiektuak bertan behera uztearen ondorioz pairatutako kalte ekonomikoa moteltzeaz gain (aurretik egindako gastuak, erreserbak, materialaren alokairuak, kanpoko profesionalen kontratazioa...), gastu finkoei aurre egiteko ere erabili ahal izango da. Guztia behar den moduan justifikatuko da eta horretarako irizpideak ezarriko dituzte instituzioek sortuko den kulturaren mahairekin batera. Irizpide horietan euskarazko kulturak³ eta adierazpen artistiko, sortzaile eta eragile kultural txiki eta zaurgarrienak modu berezitan izango dira kontutan, hauek baitira ahultasun eta prekarizazio kroniko eta estrukturalaren ondorioz, desagertzeko egoera serio baten aurrean daudenak. Etorkizunean kulturgintza osasuntsua nahi badugu ezin ditugu kulturgintzaren ekosistema osatzen duten gainontzeko eragileak atzean utzi. Izan ere, industriaren neurri, arau eta laguntzek ezerezean uzten dituzte baldintza horietan sartzen ez diren proiektuak. Kultur adierazpide guztietan ez bada gehienetan, ugariak dira, autonomo izatera iristen ez diren sortzaileak. Gatazka hori aspaldiko kontua da, eta birusaren ondorioz sortu den egoerak areagotu egin du beste behin ere industria hutsean oinarritutako ereduak dakarrena.

Egun bizi dugun egoeran, emergentziazko egoera bati erantzun behar zaio maila guztietan eta galerak era askotakoak dira, ez soilik emanaldien galeraren arabera galerak ekonomikoak, baizik eta kulturalak, proiektu bakar batek ere ez lituzke atek itxi behar, zabaldu egin behar litzateke egoeraren ondorioz arriskuan edo hondoratzean egon daitezkeen proiektuen galerak frogatzeko moduak: formatu ertain eta txikiko produkzioak, sormen espazioen galerak, antzerki eta musika eskolak, hezkuntza proiektuen galerak ikasturtearen hondatzearekin, langileen egoera ezberdinen arabera galerak -autonomo ez direnak, boloen arabera soilik kotizatzen dutenak- kultur proiektuak, kultur jardunaldiak, ipuin kontalariak, kultur elkarte gisa egituratuak dauden konpainia eta proiektu profesionalak, ikerketa eta

³ Ikus II. Eranskina 13. Orr.

argitalpen proiektuak Ondorioz, galerak definitzerakoan, zabaldu egin behar dugu begirada. Industriaz besteko arlo hauek guztiak gabe kulturaren produkzioa ezin daiteke mantendu, ez duelako ekosistemarik izango bizirauteko. Begirada produkziara bakarrik bideratzen badugu ez da produkzio horiek ulertzeko ez haietara zaletzeko agenterik izango.

Kulturaren krisi funtsarekin Liburutegi publiko funtsak handitu ahal izango dira, horretarako eskaera egiten duten Liburu-denden bitartez egingo dira erosketak, beti ere modu orekatuan hauen tamainaren arabera eta liburu-denda txikietan esfortzu handiagoa eginez.

3. ATZERATZEA VS. BERTAN BEHERA. ORDAINKETAK 30 % Y 70 %.

Instituzio, administrazio eta zuzeneko kultur emanaldiak antolatu dituzten eragile publiko guztiak, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz bertan behera geratu diren emanaldiak "sine die" atzeratu eta bertan behera ez uzteko konpromisoa hartuko dute nahiz eta kontratuan horretarako eskubidea izan. Horren ordeztzeratzeko akordioa lehenetsiko dute data berririk finkatu gabe eta egoera argitzen doan heinean berriro ere programatu ahal izateko. Kontutan hartuta 2020ko azken hiru hilabeteetan emanaldi eta ikuskizun asko metatuko daitezkeela, 2021 lehenengo hiruhilabetekoan programatu ahal izateko aukera baloratu eta aztertuko da.

Horretaz gain, eta kontutan hartuta gastu aurreikuspenetan horrela zegoela, egin behar diren/ziren egunaren datarekin, bi aldeen arteko kontratuan edo akordioan jasotako %30ko ordainketa ordaintzeko konpromisoa hartuko dute administrazio, organismo eta instituzio ezberdinek eta gainontzeko %70a ikuskizuna edo emanaldia denean. Azken finean 2020 ekitaldirako diru hori horretarako gastatzea aurreikusita zuten, eta hauentzat ez badu asko suposatzen, kulturgintzan dauden sortzaile autonomo zein soldatapekoentzat asko suposatu dezake. Honetarako oinarri juridikoa Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 198. Artikuluaren 2. Puntua.

Jada bertan behera utzi diren kontratuak lehentasunez aztertuko dira urteko bigarren sei hilabeteko programazioan eskaini ahal izateko.

4. BEZ KULTURALA

EAEko eta Nafarroako exekutiboek espainiar estatuko gobernuari 2020ko abendura arte kultura-BEZA %0ra murrizteko eskaera egitea, hezkuntza mundukoarekin parekatuz.

5. DEIALDI ETA DIRULAGUNTZAK

Instituzioen diru-laguntza deialdiak eta hauen finantziario lerroak berebiziko garrantzia dute Euskal Herriko proiektu kultural eta arte eta industria kultureko egitasmo gehienentzat, egoera bereziki kezagarria da, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak sustatzen dituen Bitartez, Sorgune edo KSI Berritzaile moduko deialdietan. Deialdi hauek berebiziko garrantzia dute EAE-ko Kultur Industrien ekosistema osatzen duten elkarte eta enpresentzako.

Nafarroan esaterako arte eszenikoen sorkuntzarako diru-laguntzak urtero konbokatzen dira, otsaila-martxoa aldera deialdia izaten delarik, baina 2020koak oraindik ez dira publikatu eta proiektu asko daude horien zain. Artem, Ideia, Ágorart, Sustraiak, Udal platea, Generazinema, Geroko, 948 deialdiak...

5.1. Aurrekontuen luzapena: 2019ko proiektuak

EAEEn 2019 urtean arazo asko egon ziren proiektuen aukeraketarekin -maiatzean behar ziren aukeratu baina irailera arte ez zen aukeratutako proiektuen berri eman-. Horrek kalapita eragin zuen proiektuak garatzeko zazpi hilabete izan beharrean lau baino gutxiago izan zirelako.

Ondorio zuzena du horrek oraingo egoeran elkarte eta enpresetako asko orain ari direlako memoria eta justifikazioak aurkezten. Indarrean dagoen alarma egoerak bertan behera utzi ditu prozedura guztiak eta elkarte zein enpresa horiek nola eta noiz kobratuko duten ikusteke dago oraindik. Egoera berdina ematen ari da Nafarroan.

5.2. 2020 urteko proiektuak nola aurkeztu

2020an egoera ez da hobetu EAEn. Bitartez eta Sorgune deialdietako oinarriak, adibidez, otsailean aurkeztu behar zituen Kultura Sailak baina, martxoan gaudelarik ere, ez da oraindik deialdi publikorik egin. Berandu ibili da, berriz ere Eusko Jaurlaritza baina utzikeria honek zuzeneko eragina du oraingo egoera honetan. Nafarroan otsaila-martxoa artean izaten dira ere deialdiak baina 2020 urtekoak ez dira ezta publikatu ere egin.

Larrialdi egoera dela eta sine die atzeratu dira deialdi hauek guztiak. Honek erabateko ziurgabetasun eta babesgabe utzi ditu egoerara EAEko eta Nafarroako Kultur eta Sormen Industria osatzen duten ekosistemako eragileak 2019an hainbat izan baziren desagertu ziren proiektuak, 2020a basamortu bihurtu dezake euskal kulturaren garapenerako estrategikoa den sektore hau. Arazoa, azaldu bezala, bikoitza da: batetik, aurreko urteko lana ezin dutelako kobratu eta, bestetik, aurtengo proiektuak noiz aurkeztu ahalko dituzten ez dakitelako.

Jaurlaritzaren kasuan lana telematikoki egiteko deia egin du baina sortzaileei lana egiteko aukera galarazi die. Batetik deialdi hauen iragarpena bertan behera utzi duelako eta bestetik 2019an proiektuak burutu zituzten eragileei justifikazio horiek egunotan egiteko aukera kendu dielako. Esan bezala, egoera hau bereziki larria da kultur elkarte zein enpresa hauek 2019an diru hori aurreratu egin zutelako eta egun ez dakitelako ez noiz aurkeztu ahal izango dituzten justifikazioak ez eta noiz irekiko diren 2020ko deialdiak ere.

Egoera honen aurrean EH Bilduk honako hau proposatzen du:

- 2019 urtean burututako proiektuen justifikazioa aurkezteko modua ahalbidetzea.
- 2020an burutuko diren proiektuak berandu burutuko direla jakinda, justifikazio eta horiek burutzeko erraztasunak eman eta datak malgutzea.

6. NEURRI FISKALAK

Diru sarrerak jaitsiko diren honetan, fiskalitatearen bitartez ez dira neurri esanguratsuenak hartzea aurreikusten, baina egun dauden hobari fiskalen portzentajek handitzea aztertuko dira krisi mahaian.

Baita ere, Aldundi edo Gobernuari egin beharreko zergen edo bestelako tasen ordainketak atzeratzeko eskaera azertu eta adostuko da krisi mahaian.

7. UDAL TASAK

Izaera publikoa ez duten antzokietan, sorkuntza-guneetan, zinema-aretoetan, kultura-saltokietan, liburu-dendetan... 2020. urteko udal tasak ordaintzeaz salbuetsita egongo dira, edo bestelako onura edo konpentsazio aplikatuko da udalerrri bakoitzaren egoera eta errealitatearentzat baliagarriagoa den formula bilatuz eta beti ere legeak eta arauak ezarritakoaren arabera. Adib. IBla Entsegu lokalak edo biltegiak dituzten musika talde edo arte eszeniko konpainiei, liburu-denda txikiei...

ERANSKINA I

Kulturaren egindako inbertsioa justifikatzeko joera dago, BPGaren eta enpleguaren zati handi bat suposatzen duen argudio bakarrarekin. Argudio horrek osagarria izan behar du, eta ez nagusia. Kulturak garapen eta kohesio sozialaren eragile gisa duen garrantziagatik eta gurea bezalako herrian giza komunitateren identitatearen oinarri eraginkorrenetarikoa izateagatik estrategikoa da guretzat. Hala eta guztiz ere, momentu honetan hartu beharreko neurriak ekonomikoak behar dute izan halabeharrez, krisi honek kulturagintzaren prekarizazio kronifikatua duen eraginagatik eta izan ditzakeen ondorioengatik. Urgentziaz abiatu beharreko lehenetsuneko bi neurri planteatzen dira, kultur ekosistemako eragile eta pertsona desberdinekin landuta; beste neurri eta proposamenak baditugu eta partekatuko ditugu datozen egunotan, baina hiru hauek premiazkoak dira gure ustez.

Kulturaren Euskal Behatokiak EUSTATEkin batera 2019an argitaratutako azkeneko azterlan eta estatistiken arabera⁴ Arteen eta Kultura Industrien eta Sormen Industrien esparrua guztira 1.092 agentek osatzen dute, 762 milioi euroko diru-sarrerak metatzen dituzte eta 6.834,4 langile hartzen dituzte Araba, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Nafarroako Estatistika Erakundearen azken datuen arabera⁵ (2014), Sektoreak 2014an sortutako Balio Erantsi Gordina 234,5 milioi eurokoa da. Kontutan hartu behar da datu horretan moda, bideo-jokoa/digitala, publizitatea edo arkitektura ere jasotzen direla.

4. EAEko administrazio publikoek kulturaren egindako gastua eta sektoreak BPGak duen pisua aintzat hartuta. https://www.eustat.eus/elementos/ele0013200/tbl0013201_e.html

5. Nafarroako Estatistika Erakundearen datuak Nafarroako Kultura Plan Estrategikoan jasoak <http://www.gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/plan-estrategico-cultura-navarra-2017-2023>

Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratutako 2019ko Kultura Estatistiken Urtekarian⁶, Kultura-sektoreak espainiar estatuko BPGari egindako ekarpena% 3,2koa izan zen 2017an. Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari lehenengo postuetan agertzen dira, beraz zaila bada ere zehaztasun osoz esatea zenbateko pisua duen Hego Euskal Herriko ekonomian estatistika eta neurketetan irizpide eta indikadoreak ezberdinak erabiltzen direlako, BPGaren % 4 eta % 5 artean kokatzen da. Hau inportantea da kontutan hartzea neurri ekonomikoak ezartzerakoan.

6. 2019ko Kultura Estatistiken Urtekaria <https://www.culturaydeporte.gob.es/dam/jcr:b7709b83-028b-4354-988b-c1fe8483f336/principales-resultados-2019.pdf>

ERANSKINA II**EUSKARAZKO KULTURGINTZA**

Dokumentu honetan aurkezten diren EH Bilduren neurriek Euskal Herriko kulturgintza bere osotasunean, erdarak barne, hartzen dute. Baina argi dugu euskarazko sorkuntzak merezi duela arreta berezia, eta ñabardura. Hau da, komeniko litzatekeela euskarazko proiektuentzat plangintza, azpi-mahai edo lanketa berezitu bat egitea, batez ere “merkatua” eta “espresiorako espazioak” erdararekin konpartituak dituzten diziplina artistikoetan, euskarazko zirkuitu bereziturik ez dutenetan. Berbarako, arte eszenikoak. Erdarazko arte eszenikoek ere prekariedade bizia dute eta dokumentu honetan proposatzen diren neurrietan aintzat hartzen dira noski. Baina horren barruan sarritan are prekarioagoa izan ohi da euskarazko proiektuen egoera. Euskaraz egiten den kulturak babes berezia beharko luke euskararen eremu osoan. Horrela ba, uste dugu sorkuntza, ikerkuntza, hezkuntza eta industria euskaraz burutzen duten proiektuak kontuan hartuak izan behar liratekeela, erdaretan sortzen direnen aldean ahuldade egoera handiagoa dutelako eta biziraupen arrisku larriagoan daudelako. Berriz ere azpimarratzen dugu: proiektuak diogu eta ez industria. Proiektu hitzaren inguruan beste edozein forman aurkeztu daitezkeen ekimenak jasotzen direlako, kulturari egiten dioten ekarpenagatik interesekoak direlako. Kulturari egiten zaion ekarpena da kontutan hartu beharrekoa, horrek hartzen duen forma juridiko ekonomikotik haratago. Geruza hauek guztiak elkarri lotuta daude eta batak gabe besteak ez du aurrera egiterik. Hauek denak dira kontutan hartu beharrekoak beti ere baina are gehiago krisialdi honetan. Begirada produkziara mugatzeak hori sostengatzen duen ekosistema osoa ikusezin bihurtzea dakar eta hori landu gabe uztera kondenatzen.